

EHIZTARIAREN GAURKO EROTIKA

Patziku Perurena

Saio interesgarria, Joseba Zulaikak egin duena: "Ehiztariaren erotika", (Erein). Basurde ehiza ardatz harturik, taldean eta jendaurre-rako egiten den ehizari buruzko iritziak eta usteak, askotan behintzat, bertatik bertara berak bizi izandakoak, azaldu ditu. Oso ongi iruditzen zait ehiza alderdi horretatik ikertzea, baina hori guzia ukatu gabe ere, ehizak badu hori baino muin ederragorik. Gauzak horrela, grina beroz egindako saio entretenigarri hau arrimotako hartuz, ehizari buruzko nere iritzi batzuk eman nahi nituzke segidan.

Semiotikaz ari den aurreneko atalak ez dit halako buruhausterik sortu. Sinisgarri egin zait kasik bere osoan. Aurrera jo baino lehen, esan dezadan ordea, inportantzia haundiko gauza dela ehizak (kasu honetan usaimena bitarteko) bertatik bertako ezagutza eskatzen duela azpimarratzea. Ongi esaten du Zulaikak: "ezaguera pertsonala da, jakinduria inpersonala" (55 or.). Muga honek, ehiza ezezik, antzinako kultura ederra eta gaurko moderno ergella ere ederki bereizten ditu hura bertatik bertako ezaguera sakonean oinarritua, hau berriz, hutsaren gaineko jakinduria ergelez haizatua. Beraz, kultura on guzia ehiza denez, edozein modutako ehizaren muina, nork bere ezaguera bertatik bertakoan oinarritzen du beti-

beti-beti; eta bertatik bertako ezaguera senazko horretan usaimenak sekulako garrantzia zuen behiala gizakiontzat ere, gaur ez hainbeste.

Euskararen baitan ere aztarren ugariak utzi dizkigu **sudur** zentzu horrek: **suma**, **usma**, **usna**; neska **sur**, gaztain **zur** ibili; bazka **surrean**, perritxiku **zur**rean ibili; **sumatu**, **usai** egin, **usman** egin; inoren **susmoan**, **susmurrean**, **usaiean** ibili, etabar... Esalege zahar horiek denak, beren muinean, usaime-nari dagozkionak dira. Baina, halakoak adierazterakoan ere, Joseba motz samar gelditu den errezeloa dut.

Sinbolikaz dihardu liburuaren bigarren atalak. Honetan hazi egiten ditut Joseba gure arteko aldeak. Ez negok batere konforme, hik egiten duan bezala, ehi-za *aberetasun basati/gizatasun kulto* arteko muga kokatze horrekin (75 or.). Hauxe bada komeria! Atzenaldira, -nik ez zekiat zer arranegatik? ziudano moddernilloen norttaxun exkaxa dela medio, behar bada- gauza guziari nahitanahiez muga kontrajarriak bilatu beharreko gaitza zabaldu duk kultura-ren alor guzietara.

Benetako ehiztaria, behingoz harrapatu duen pizti horren auzakide izana duk luzaroan; harekin parez pare bizia, haren ibilerari begira txoratzen egondua askotan; baina biziak barkatzen ez, eta atzenean, hil ala bizi egin behar. Ehizta-

ria biziko baldin bada ehizgaiak hil egin behar. Horixe duk ehizaren benazko muga bakarra, gaurkoa eta betikoa, bai gizartean bai piztien artean, eta baita beste edozein izaki bizidunen artean ere.

Ez diat uste, benetako ehiztari batek, aberetasun/gizatasun arteko bereizkuntza esistentzialistik santa sekulan egin izanen duenik. Benazko ehiztariak ez baitik sekulan jartzen bere burua alde batetik eta natura bestetik. Hori oraingo ekollogixta moddernoen kontua duk. Egiatzko ehiztariak, inguruko izadiaren barrenean ikusten dik bere burua, eta han jokutzen dik bere bizia, beste edozein izaki bizidunen antzera. Inor inoiz gizatasun/abertasun arteko bereizkuntza egiten hasten bada, horixe bera hukek benazko ehiztaria ez deneko frogarik argiena. William Blake ez huan hain ehiztari txarra, "gizonik ez den lekuan antzu da natura" esaten zian. Gaurko ehiztaria berriz, ez natura eta ez gizon. Telemandoz erabiltzen den robot afeminatu txintxo bihurtu duk.

Gero, piztia *inguratu*, eta han *erdian errauste* hori, garai bateko *kromlech bibriletako* harpetan aurkitutako *hautsekin* parekatzea (82 or.), hagitz entretenigarria iruditu zaitak. Bai motel: parra eta guzi egin diat. Beste hainbeste: *etsi, sinetsi* (90 or.); *zerri zikina/garbitzea* (100 or.) eta antzeko etimologi jo-

koekin. Ez hori bakarrik, Mitxelena jaunaren anima jakintsuari eta hire sinismen itsuari nere senezko ezaguera tikiarekin kontra eginez, uste hitza, nere ustez behintzat, ustel hitza bezalaxe, usaimenetik datorrela esan gabe ezin nauk gelditu. Onartzekoak hituzke, bestalde, talde/espezie delakoaz egiten dituan bereizkuntza (98-99 or.), baina, basurde ehizari dagokionez noski, ez oro har ehizaren funtsean hala direlako.

Noski, basurde ehiza, azeri ehiza, otso ehiza, etabar... taldean egiten diren ehiza motak izandu direla. Aurrena piztia inguratu, gero inguru hura estutuz joan, eta azkenean piztia erdian garbitu arte. Baina, gizarte sistema arautua arriskuan jartzen zuten pizti zikin haiek garbitzeko batidak, deus ikusi gutxi ditek, nere iduriko, ehizaren muinarekin. Izadian ere, apenas ematen den taldean burututako ehizarik. Nik esan behar banu, ehizaren benazko sena desegiten duten ehiza moeta sozialak dituk hauek. Beren sorreran eta helburuan gizarte sistema baten araudiari eusteko asmatutako estrategia sozialak bait dira; eta ehizaren muina, justu alderantzizkoan ematen duk: sistema arautu baten hausturan. "Bada legea, bada tranpa", horixe duk ehiza ororen muina. Horrexegatik dituk, ehizaren esentziaren kontrako estrategia sozialak,

oro har, gaur egiten diren taldekako ehiza mota guztiak.

Erotikaren atalera paseaz, eta aurreko hari muturrari helduz, nori gustatzen zitzaioke ordea bere tranpak edo triki-mainak taldean azaltzea, taldean erakustea? Inori ere ez. Bestela, ez hituzke gainera ixileko tranpak izanen, arau ezagunak baizik. Oso ongi iduritzen zaitak *gizon/emakumeen eta ehiztari/ehizgaien* arteko erotikaren antza seinalatzea. Izanez ere, elkarren antz haundia duten jokuak dituk. Baina, hagitx nekez taldean burutuak; bakarkako edo buruz burukoak baizik. *"Ehiztaria ehizan ari dela, berak sentitzen du bere burua kontrolpean bezala, inguru guzia haren ehizean balego bezala"* (120 or.). Noski ba. Halaxe sentitzen dik bere burua gizaseme maiteminduak ere maitearen atzetik disimuloan dabilela. Edozein ehiza klasek ere, nork bere bakarrean, ixil eta erne, jardutea eskatzen dik. Ingurukoak ohartu gabe, ezkutuko intentziorik badabilkiele inor konturatu gabe, burutu behar dik bere ekintza ehiztariak; bestela, inguruak, ohartu bezain pronto, salatu egiten baitu ehiztariaren intentzioa, eta armarik eta ahalmenik batere gabe gelditzen duk ehiztaria.

"Ehizean ez, ezean bai" horrekin ere ez negok oso konforme. Helburu jakinik gabe hutsean burutzen den ekina ere

eztuk ehiza. Benazko ehiztariak, dela gizaki dela pizti, aldez aurretik nondik noratsu dabilen badakien pizti haren-gana joko dik ehizari ekiteko orduan. Baina, nekez ibiliko zaik noraez itsuan. Esanera ere baduk: Ehiztari ona beti ehizan. Eta pintore ona, bertsolari ona, edo putanero ona, berdin. Beraz, askotan, egunak eta egunak ehizgaiari miraz begira egondua izanen duk ehiztaria, hartaz liluratua balego bezala, baina, egunen batean "hire txanda ere ailegatu duk ba" esanez harrapatuko dik.

Denboragabeziari buruz esaten diren kontuak ere, jolas entretenigarriak irudituz zaizkitak, baina, gutxi gehio. Ehiztariak denbora naturala sumatzen dik, ingurugiroak eta aldian aldiko eguraldiak markatzen diotena. Gizaki zibilizatuak berriz, denbora artifiziala asmatu dik. Baina, ez dik deus ikustekorik batak bestearekin. Ehiztariak betikoa behin batera biltzen duela eta holako aurkikuntzak, ez dituk hiritar baten irudipen erromantikoak baizik. Benazko ehiztariak ezagutzen ez duen gauza duk, esaterako, eguneroko lan berdina sortutako asperdura edo monotonia urbana. Egiatzko ehiztariak ez baitu lanaren zentzurik ezagutu ere egiten.

Ehiztaria, izadiak beren ematen duenetik bizia ateratzen duen izakia duk. Lurra lantzen hasi zenak sortu zian lana, ez egiatzko ehiztariak. Gainera,

ehiztaria, alferjende baztertua izandu duk beti nekazal giroan eta beste zeinahi gizarte sistema araututan. Beraz, hortik igerri zitekek, hark denborari buzur zer iruditu ederra egina daukan.

“Behin txoria tiragomaz jo eta bota egin zuen, eta eskuan txori hila hartzearekin batera negarrari eman zion” (109 or.). Hori, ehun motikotatik xiroлка txarren bati gerta lekioken gauza izan zitekek; ez ordea, eredutzat hartzekoa. Ni, neroni, umetan hamaika txori harrapatua nauk zepoan, baina, halako negar xikinik ez diat sekulan egin. Biligarrokume eta xoxokumeak ere, noiz lumatu zai egoten ninuan, kabitik hartu, lepoa bihurritu, eta amari kaxuelan jartzera eramateko irrikaz. Egia esan, holako gixa xenttimenttu xuri gehitxo sumatu diat, tarteka, saio guzian zehar.

Ehiztaria, noski, hagitiz izaki sentibera dela, baina, haren sentiberatasunak ez dik deus ikustekorik gixataxunexko moddalderia xulli bellaxka horrekin. Ehiztaria, noizean behin gizartera itzultzen bada ere, eta gizarteaz baliatzen bada ere, bizi esaten dena, bizi, gizar-teaz haruntzik bizi baita beti; esan nahi diat, gizarte zibilizatuak atzera utzitakotik edo errepus utzitakotik bizi dela, alegia. Begira Joseba, egiazko ehiztaria, hain duk gizaki zoragarri eta baka-

na, non ez den kasik gelditu ere egiten espezie honetako gizakirik.

Bai letore, nik uste, iritsia izanen dela oraintxe zuregana bihurtzeko ordua. Egiazko ehiztari hori zein den diozu, ezta? Zein izanen da, ba? Zibilizazioaren martxari bizkar emanda bizi den

Egiazko ehiztaria ez da gizaki soziala; ez du egiten ehiza jendaurrean edo taldean. Ehizgaia eta hura harrapatzeko erabili dituen trikimainak isilean gordeko dizkizu beti

benazko sasigizona. Kastillanoz “el auténtico furtivo” deitzen omen diote. Inor gutxik daki haien berri. Isilpean hiltzen dira, inolako historia zikinik utzi gabe. Halakoak harrapatzen dituen ehiztari bakarra heriotza bera izaten da.

Zulaikak erabili duen basakristau hitza ez da batere nere guztizkoa. Egiazko ehiztari izateko aurreneko kondizioa, gizar-teko araudi kristauak ezarritako mugak aintzat ez hartzea da, eta gero, etengabe muga horiek ixilka edo disimuloan hautsiz bizitzea. Egiazko ehiztaria, hain zuzen ere, gizarte zibilizaturara egokitu eta makurtu ezin den gizakia baita.

Ez naiz alki, Ortega y Gassetek *ehiza erregeren eta nobleren "la ocupación venturosa más apreciada"* dela esate horrekin (166 or.); ezta Miguel Delibeseke ehiztaria Tenoriotzat jotze horrekin ere (157 or.); eta are gutxiago Bergaminen hitzak aintzat hartuz, plazan hildako zezenaren eta ehizan botatako basurdearen heriotzak parekatze horrekin (125 or.). Adibide horiek denak, sustrai bera dute: jendaurrean nolabaiteko gizentasuna edo haunditasuna erakutsi nahiaren irrika, alegia. Alderdi horretatik aztertu du Joseba Zulaikak ere basurde ehiza, baina, hori ez da egiazko ehizaren sustraia eta gutxiagorik ere. Egia da, gaur egiten diren desehiza klaseak kasik erabat horrelakoak direla, baina, horiek ez dute deus ikustekorik ehizaren benazko funtsarekin; ehiztariak ez baitu taldeari edo publikoari begira deusik egiten; juxtu alderantziz baizik; eta artikulua txar hau luzatze alde, azalduko dut zergatik:

1.- Egiazko ehiztaria, aurren aurreneko, ez da gizaki soziala; ez du egiten ehiza jendaurrean edo taldean, eta are gutxiago berak egindako azaina edo harrapatutako ehizakia gero jendaurrean luzitzeko irrikaz. Ehizgaia eta hura harrapatzeko erabili dituen trikimainak isilean gordeko dizkizu beti ehiztariak. Isilean burutuko du ehiza, eta gordean etxeratuko du, inork ikusi bildurrez, eta

inondik ahalbaietean, ixilka jan ere. Hori, gizaki ehiztari batek bezalaxe, gabirai ehiztari edo azeri ehiztari batek.

Ehiztariak badaki, ehiza burutzeko lege hauste gisako zerbait egin beharra daukala nahitanahiez; edozein pizti ehiztari ere ohartzen da horretaz; beraz, ehizak bere muinean daraman lege hauste hori, ahalik eta isilen edo gordeen burutzera joko dizu beti egiazko ehiztariak. Hori dena ikusteko, aski duzu ehizan gordeka eta ixil mixilka dabilen ehiztaria bete betean harrapatzea; pekatuan harrapatu duzula irudituko zaio; ixilka eta ezkutuka bere baitan bildua zebilen gizona, bapatean lur jota geldituko zaizu, bere helburuaren habe guziak, denak batera lur joak geldituko zaizkio. Labur esatera: harrapatu nahi duen ehizgaiari ez dio batere bildurrik ehiztariak, baizik eta bestek ehizan dabilela harrapa dezan, honek kezkatzen du tioso. Izan ere, bere isilpeko ehizalekua, ehizarako trikimaina, bizipidea etabar galdutzat joko baititu harrapa dezaten aldiro.

2.- Bigarrenik, lekuan lekuko sasigizona da ehiztaria, egunero bere ingurua erreparatuz, sentituz eta gozatuz bizi dena. Benazko ehiztari denak, gaur perretxiku batzuk bilduko dizkizu, bihar amorri ale batzuk eskuz arrapatu, etzi oilagorra zepoan, etziramu gaztain mordoska, hurrena muxar bi, eta hurre-

nagokoan patrikerak bete pagotxa edo mauka bete larramilu. Horri denari deitzen zaio ehiza. Beraz, urtean bizpairu aldiz Burgosera basurdetara joaten dena, edo udatzenero usotara edo eperretara eztaikit nora joaten dena, ezin izan ehiztari. Ehizak ingurumariaren ezagutza zuhurra eskatzen baitu derrior; eguneroko eta bertatik bertako ezagutza xehe senezkoa. Artzai bat bialtzen baduzu, Bilboko supermerkatu batera ehizara, hau da, tranpa txikiren bat egin eta, ezarritako legea hautsiz zoezer eskuratzeraz, ez dizu inondik inola ere asmatuko. Gauza bera, Bilbotik urtean behin Soriako basora ehizara doan ehiztari usteko kalekume ointxuria. Ehiztariak, nola basoko hala hiriko izan, bai erbisur bai dirusur jarun, derrior bere ingurua ezagutu beharra dauka ongi; ezagutu eta kontrolatua eduki gainera, gero, errezena eta disimulatuen ikusten duen puntu hartantxe araudia hautsi eta ehiza eskuratze-ko. Horrexegatik gelditzen da hain pizti ehiztari gutxi: piztien inguruan erabat bizi den egiazko sasigizon gutxi gelditzen delako, alegia.

3.- Hirugarrenik, eta aurrez esandakoa-ri eutsiz, gaur, ehiztari usteko jende asko, hala ez dela erakusten duen frogar garbia ehizako jantzia bera da. Ehiztariaren jantzi berdaska hori, gaurregun, kasik uniforme derriorrezko bihur-

tu da. Hor ikusiko dituzu, behin udatzena ezkerre, ehiztari usteko horiek denak taldeka, harro harro, beren uniformeak jantzita, kapela buruan, eskopetak bizkarrean, noranahiko prest. Noranahiko ere ez, gaizki esan dut ehiztari elkarteak txotx egin ondoren, bakoitzari tokatu zaion paradara xuxen eta txintxo joateko prest.

Hori dela medio, kirol sozialarekin alderatzen du jende askok ehiza. Hori ehiztari izatea baldin bada, zer ote da inoren esaneko morroi txintxo izatea? Gaurko ehiza, kirola bezalaxe, erabat ofizialdua eta erakundek arautua da. Eta juxtu, modu horretxan laudorioa egin du Zulaikak. Non galdu ote da bertsogintza ofiziala kritikatu zuen Joseba hura, gaur ehiza ofizialaren alde jarduteko.

Gaurko giza ekintza gehienak bezala, gaurko desehiza moeta gehienak ere, *nork hori erakutsi* behar itsu horretan oinarritzen dira. Baina, ehiza ororen funtsa, nor noren gordean eta ixilean jardutean datza. Nolabait esan, nor bere buruaren jaun da jabe izan nahiak sortzen du ehizaren funtsa, nortasunaren mentura horrek eragiten du ehizaren sorrera. Gaurko gizarte ereduak, eta gaurko desehiztari taldeak, ordea, nor bere buruaren jabe izate hori ukatzera jarriak dauzkazu erabat; ukatu eginen dizute zeure nortasunerako eta

ehizerako aukerarik xixtrinena ere. Nik esan behar banu, egiazko ehiztaria ez da, gaurko ehixtari eta ekollogixta ustekoei isilean parra gozo eginez bere bizia ehizetik ateratzen duen sasigizon izu huraxe baizik.

Gauza asko esan liteke ehizari buruz, baina, nik, behingoz bukatzeko, lagun arteko aitorpen batzuk egin nahi nituzke atzera. Zulaikaren estiloaz: jakinduria gehisko, eta bertatik bertako eza-gutza senezko gutxisko nabari duk. Teoria antropologiko modernoetan sisnismen haundiskoa jartzen duk.

Begi bistakoa baita, gaur eguneko saiakerak, oro har, jakinduria sikologiko ergel baten irudipenak baizik ez direla; aldian aldiko lilurapen zoragarriak noski, baina, bertatik bertako esperientzia oparo eta ezagutza sakonarekin deus ikusteko gutxi dutenak. Hori bai, hik heltzen dioan gai bakoitzari mainaz eta grina sutsuz heltzen diok, eta horrexegatik beragatik, bihotzak gainez egiten dik; itsutu egiten haiz. Apasionatuegia eta erromantikoezia haiz, eta ondorioz saiakerak oinarri beharko lituzken soseguak eta senak irrist egiten ditek, kasi kasik aztertzen duan gai bakoitzaren apologia egiterainokoan. Horretan baduk hire oso antzeko lagun bat. Eh Mikel?

Bai, bai, bukatzera noa, Leitzako Beñes bertsolari zaharrari gertatutako pa-

sadizo ezagun batekin; hagitx egokia iruditzen baitzait esandako guzia muin batera bihurtzeko.

"Behin batez, Beñes honek, etxeko behiren batek errapemina harrapatu eta, albaitea ekarrazi omen zuen. Ikusi omen zuen albaitea behi hori eta, ez asmatzen zertatik etorria izan zezakeen gaitza!

Beñes horrek, hala esan omen zion orduan: erbinudek hozkatua ez ote zitekeen izan. Albaitea ordea, ez jakinki erbinuderik bazenik ere! Eta behiei erraperik kozkatzen zienik eta gutxia-gorik ere! Gizonak, bere ezjakina erakutsiz, esan omen zion, ikasiko zuela ongi, pixti horren kontua nola izaten zen, eta etorriko zela bihamonen.

Urrengo egunean joan omen da berriz Beñesen baserrira, eta Kristobalek segitun galdera:

- Ze, ikasi al dozu jaun, nola izaten den erbiñuden kontu ori?

- Ez ba, ez dot ikasi. Pasa dittot liburu guzik, beño ezta iñune airi erbiñude orren aztarrenik!

- Beño beño! **liburutan** nola billatuko ziñun ba? Ez al nizun ba esan, paitazulotan da, sasi tartetan da, ibiltzen zela!